

ITSUA ETA SASTREA



BIGARREN SARI OOREZKOA

AIREA: *Adio Euskal-erria.*

Euskaldun bat zen Itsu eta bertsulari:
 Atez-ate zabilan iloba gidari,
 Soineko eta diru, yanari edari,
 Nasaiki biltzen zuten bertsu eman sari.

Zuur gisa baitzuten sos guti gastatzen,
 Piko-pean eltze bat gordea zaokaten,
 Iru ebun libera arat bildu zuten,
 Bainan gaichtagin batek ebatsi zioten.

Bere gorde lekutik galdurik eltzea,
 Bat zagon asperenka, nigarrez bertzea;
 Oi au da biotz mina, oseba maitea,
 Orra zer den kanpoan gauzen gordetzea.

Azkeneko aldian emen ginelarik,
 Ikusi gaituztela ez diat dudarik;
 Bai, sastrea eldu zen pegarra beterik,
 Beatu zuen guri bainan urrunetik.

To! arnezak eskutik sastrearen gana,
 Adi dezan bertsu bat Itsuak emana;
 Gure eltzea badu arek eremana,
 Bazakiat nik, ura zer gisaz engana.

Ilobak Itsuari apal bearrira;
 Sastrearen etcherat orai eltzen gira;
 Irri faltsuan dago leiotik begira,
 Ez erran itz gaichtorik zuurra bazira.

Iloba gida nezak artoski bidean,
Zerbait daiat utziko azken egunean;
Eun luis baitiat piko baten pean
Bertze eun emanen biar an berean.

Sastreak bere baitan: Itsuak etzakik
Artuak ditudala orren sosak andik;
Eltze au diruekin berriz an emanik
Bertze iru eunak bilduko tiat nik.

Itsuairen agintza balios izan zen;
Biararamun goizeko eltzea an zuten
Ilobak erran zion: emen dugu emen;
Oi zein ongi sastrea enganatua den.

Ene moltsan bearduk dirua ezarri;
Lurpean ola-ola utzak eltze ori;
Eta emok barnean bortz edo sei arri,
Sastreak aski pisu altcha dezan sarri.

Itsuak sastreari: To! errak egia
Atzo bezala dukan arrai arpegia?
Ala trichterik agon doluan yarria,
Dirua erain eta bildurik arria.

Itsu arpagon zikoitz laido emailea;
Abil eta ez kolpa ene oorea.
Dirudun baaiz ere, eta ni gabea
Baduk aski zorigaitz ire illunbea.

Ni Itsu ilunbean, i sastre erromes,
Dezagun elgar lagun biek ditugunez,
Nik egiten aut yabe ene ontasunez,
Nai banauk okertu ire begi batez.

PIERRE DIBARRART,
Baigorri-ko Eliza-kantariak egina.

